



**2019/06/20KO UDALBATZAREN EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA
UDALAREN ANTOLAKUNTZAREN AKTA**

Eguna: 2019/06/20
Hasiera ordua: 19:05
Amaiera ordua: 19:25

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Santiago Balantzategi Ugarte

Ana Maria Martiarena Arregi

Iban Herrarte Arana

Gorka Astondoa Altuna

Maria Cristina Etxenautia Irure

Oihana Ameskoa Perez

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

- - -

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ARAMAIOKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO KONTRATATUA. ESLEIPENAREN BERRESPENA.	3
2. ALKATETZAREN ANTOLAKUNTZA ERABAKIEN BERRI EMATEA.	4
3. UDALBATZAREN BILKUREN MAIZTASUNA FINKATZEA.	5
4. BATZORDE INFORMATIBOEN ERAKETA, OSAERA ETA MAIZTASUNA.	5
5. KIDE ANITZEKO ORGANOETAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.	7
6. ALKATE KARGUA BETETZEAGATIKO ORDAINSARIA.	8
7. GALDERAK ETA ESKAERAK.	8



Bilkurari hasiera eman aurretik minutu bateko isilunea egiten da, alkate-lehendakariak proposatuta eta bertaratutako guztien adostasunez, bezperan zendutako Fernando Perez Gomez jaunaren omenez, Ibarrako auzo-alkatea.

1. ARAMAIOKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO KONTRATATUA. ESLEIPENAREN BERRESPENA.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta bertaratuei adierazten die gaiaren inguruko hainbat atal. Horien artean, 2019ko ekainaren 5ean emandako 147/19 ebazpenaren berri ematen die. Aipatutako ebazpenak, hitzez hitz, horrela dio:

“Ikusirik, 2018ko abenduaren 27an egindako bilkuran, ebatzi zuela udalbatzak hasiera ematea, eguneko landa zentroa kudeatzeko zerbitzu kontratua esleitzeko espedienteari eta, hartara, hasiera ematea kontratua esleitzeko prozedurari.

Ikusirik, 2019ko apirilaren 16an egindako osoko bilkuran, espedientea osatzen duten txosten eta agiriak aztertu eta oniritzia eman ondoren, udalbatzak onetsi egin zuen ARAMAIOKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ZERBITZU KONTRATUA lehiaketa bidez emateko espedientea, gastua onartu eta irekiera eman ziola lizitazio-prozedurari.

Ikusirik, proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, lizitatuak bakarra aurkeztu zela, epe eta modu egokian, eta hori dela egin zuen proposamena (memoria teknikoaz gain):

LIZITATZAILEA	PROPOSAMENA		
	Zenbatekoa	BEZa	Gehinenezko Zenbatekoa (urteko)
KL Koop Elkarte Txikia.	19,54.- €/ordu	0,78.-€	53.725,05 €

Ikusirik, aurreko proposamenak eta, alderatuz, lizitazioa arautzen duten administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoaren agiriarekin, ondorengo sailkapena lortzen dela:

LIZITATZAILEA	PUNTAUZIOA		
	“B” Gutunazala	“C” Gutunazala	Guztira
1.- KL Koop Elkarte Txikia..	86 puntu	100 puntu	186 puntu

Ikusirik, administrazio baldintza zehatzen agirian 17 klausulak agindutakoarekin bat, osoko bilkurak erabaki zuela errekeritza KL KOOP ELKARTE TXIKIARI, 2019ko maiatzaren 23an egindako udalbatzan, hamar egun balioduneko epean, honakoak egiteko, besteen artean: kontratatze gaitasun eta kaudimen nahikoa dituela egiaztatze agiriak aurkeztu; behin betiko bermea (5.372,51.-€) eratu izanaren egiaztapena aurkeztu; eta zerga eta gizarte segurantzaren inguruko betebeharrak beteak dituela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu.

Ikusirik, errekeritutako betetzeko, emandako epearen barruan gehitu ziola interesdunak adierazitako dokumentazioa espedienteari.

Ikusirik, idazkari-kontuhartzailearen txostena.

Kontuan hartuz, batetik, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 117 artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatua; eta, bestetik, 2019ko maiatzaren 23an egindako udalbatzak egindako eskuordetzaz baliatuta, ondokoa

EBATZI DUT

Lehena.- KL KOOP ELKARTE TXIKIARI esleitzea, ARAMAIOKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ZERBITZU KONTRATUA. Kontratuaren prezioa izango da 20,32.-€/ordua, non 19,54.-€ nagusiari dagokion eta 0,78.-€ %4ko BEZari. Horrenbestez, urteroko gehinenezko kopurua ezingo da 53.725,05.-€ baino handiagoa izan, gehi kopuru horri dagokion %4ko BEZa (2.149,02.-€). Bestalde, kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, orain indarrean dagoena amaitu eta biharamunetik kontaktzen hasita. Horretaz gain, kontratuaren exekuzioan kontuan hartu beharko dira, lizitatuak bere memoria teknikoan eskaintako baldintza eta hobekuntzak.

Bigarrena.- Kontratu honen arduradun izendatzea Leire Espinosa Casanueva andrea, udala aholkatzen duen gizarte langilea (edota, badagokio, bere ordekoa), 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore



Publikoaren Kontratuenak, 62 artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

Hirugarrena.- Interesdun guztiei ematea adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratzea. SPKLren 44.1 artikulua arabera kontratazio-arloan errekurtsio berezia izan dezakeen kontratua denez, ezin izango da kontratua formalizatu harik eta hamabost egun balioduneko epea igaro arte, lizitatzaillei eta hautagaiei adjudikazioaren berri emateko jakinarazpena igortzen zaienetik, eta, epe horretan, errekurtsio hori jarri ahal izango dute.

Laugarrena.- Hamabost eguneko epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, adjudikaziodunari eskatuko zaio kontratua formaliza dezala gehienez ere bost eguneko epean, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena Interesdunei jakinaraztea.

Seigarrena.- Jakinarazpen iragarkia argitaratzea udalaren kontratatzailearen perfilean.

Zazpigarrena.- Udalbatzari honakoaren berri ematea, egingo duen hurrengo bilkuran.”

Hori guztiari gehitu beharra dago, ez dela inongo errekurtsorik aurkeztu. Besterik gabe, alkateak ondorengo erabaki proposamena luzatzen dio Udalbatzari:

Lehena.- Berrestea KL KOOP ELKARTE TXIKIARI egindako esleipena.

Bigarrena.- Esleipendunari errekerimendua egitea, kontratua formaliza dezan, gehienez bost eguneko epean, honakoaren berri jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.- Alkatea eskuordetzea dagokion kontratua sinatzeko esleipendunarekin.”

Bozketa deitu eta, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, alkateak egindako erabaki proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

2. ALKATETZAREN ANTOLAKUNTZA ERABAKIEN BERRI EMATEA.

Batetik, 2568/1986 Errege Dekretuaren 23-25 artikuluei jarraituz, Alkateak, eratu diren talde politikoen osaketa eta bakoitzak izendatutako bozeramaileen berri eman du:

1. “EH BILDU” Udal Talde Politikoa

Santiago Balantzategi Ugarte (Bozeramailearen ordezkoa)

Ana Maria Martiarena Arregi

Iban Herrarte Arana

Gorka Astondoa Altuna

Maria Cristina Etxenausia Irure (Bozeramailea)

Oihana Ameskoa Perez

2. “EAJ” Udal Talde Politikoa

Pedro Elosegui González de Gamarra (Bozeramailea)

Juan Antonio Peña Orobengoa (Bozeramailearen ordezkoa)

Bestetik, alkateordeen izendapenari dagokionean, alkate-lehendakariak 2019ko ekainaren 17an emandako ondorengo alkatetza ebazpenaren berri ematen du:

“173/19 ALKATEAREN DEKRETUA

Ikusirik, aurreko ekainaren 15ean Aramaioko Udal-Korporazio berria eratu zela.

Kontuan hartuz, azaroaren 28ko Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 46. atala eta 7/1985 Legearen 21.2 atalak ematen dizkidan ahalmena erabiliz,

EBATZI DUT



Lehena.- Honako zinegotzi hauek Alkateorde izendatzea:

- Lehen Alkateordea: Maria Cristina Etxenautia Irure (EH BILDU).
- Bigarren Alkateordea: Ana Maria Martiarena Arregi (EH BILDU).
- Hirugarren alkateordea: Santiago Balantzategi Beitia (EH BILDU).

Bigarrena.- Ebazpen hau izendatukoei eta dagozkion udal sailei jakinaraztea; ALHAOn argitaratzea, eta Udalbatzari haren berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Hirugarrena.- Udalbatzari honakoaren berri ematea, egingo duen hurrengo bilkuran.”

Udalbatza, besterik gabe, adierazitako antolakuntza berrien jakitun gelditu da.

3. UDALBATZAREN BILKUREN MAIZTASUNA FINKATZEA.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta ondoko proposamena egin du:

Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 38.a eta 78 atalei jarraiki, Udalbatzak bere ohiko bilkuren maiztasunari buruz erabaki beharko du, beti ere 7/1985 legearen 46. Artikuluan xedatutakoa errespetatuz. Hori horrela proposatzen diot Udal Plenoari ondoko akordioa hartzeko:

AKORDIOA

Lehena.- Udalbatza hilean behin bilduko da, hileko azkeneko ostegunean, arratsaldeko 19:00tan.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea bilkuraren eguna eta ordua aurreratu edo atzeratzeko, pisuzko arrazoiak badaude.

Hirugarrena.- Uztaila eta abuztuan, udako oporrak direla eta, ez da ohiko bilkurarik egongo.

Laugarrena.- Ohiko bilkuretatik aparte Udalbatzak erabakiren bat hartzea ezinbestekoa balitz, ezohiko bilkura deialdia egingo litzateke.

Ondoren, bozketa deitu du eta, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, alkateak egindako erabaki proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. BATZORDE INFORMATIBOEN ERAKETA, OSAERA ETA MAIZTASUNA.

Alkateak hitza hartu eta ondorengo proposamena egiten du:

“Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 123, 127 eta 134. atalak diotenari jarraiki, Udalaren aktibitatea banatzen den arlo nagusien arabera 7 informazio-batzorde iraunkor sortzea proposatu du, bai eta hauen egitura eta bilkura-erregimena ere. Hori horrela akordio hau hartzeko proposatzen diot Udal Plenoari:

AKORDIOA

Lehena.- Udalbatzara doazen gaien azterketa, informe eta kontsultak egiteko, bai eta alkateak hala eskatzen dituen gaiak aztertzeko edota jarraipena egiteko, ondorengo batzorde informatibo iraunkorrak eratzea:

1.- OGASUNA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Gaiak: antolaketa, funtzionamendua eta pertsonala; ogasuna eta finantzak; kontuen batzorde berezi funtzioak (2.568/1986 EDaren 127 art.), herritarren partaidetza, koordinazio orokorra; gainontzeko batzordeetan sartzeko direnak.

2.- KULTUR ETA KIROL BATZORDEA

Gaiak: kultura, kirolak eta antzekoak.

3.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA

Gaiak: euskara, hezkuntza eta antzekoak.



4.- GIZARTE ONGIZATE BATZORDEA

Gaiak: gizarte zerbitzuak, gazteak, adinekoak, migrazioak, osasuna, berdintasuna, herrien arteko elkartasuna, kooperazioa eta antzekoak.

5.- INGURUMENA-MENDIAK BATZORDEA

Gaiak: mendiak, ingurumena, lehen sektorea, turismoa eta antzekoak.

6.- HIRIGINTZA-AUZOAK BATZORDEA

Gaiak: hirigintza, herrilanak, auzoak eta antzekoak.

7.- ZERBITZUEN BATZORDEA

Gaiak: mantentze lanak, azpiegiturak, zerbitzuak eta antzekoak

Bigarrena.- Batzorde bakoitza lau (4) kide osatuko dute. Korporazioan sortutako talde politikoaren parte-hartzearen proportzionaltasuna kontuan hartuz, banaketa hurrengoa izango da:

TALDE POLITIKOA	Kide kopurua
EH BILDU	3
EAJ-PNV	1

Batzorde bakoitzeko Lehendakariak kide den talde politikoaren leku bat hartuko du. Kideen ordezkariak izendatu ahal izango dira.

Hirugarrena.- Bilkura erregimena beharren arabera izango da; gairen bat Udalbatzara joan edota Alkateak aztertzea eskatzen duenean bilduko dira Batzordeak. Gerora, Udalaren funtzionamendua egonkortzen denean, ohiko batzordeen maiztasuna finkatuko da.

Laugarrena.- Udal talde politikoei eskatzea lehenbailehen batzordekideak izendatu eta alkateari jakinarazi ditzatela.

Bosgarrena.- Alkatea eskuordetzea, batzordekideen berri jakin bezain laster, batzorde informatiboak osatu eta eratzeko. ”

Ondoren, bozketa deitu du eta, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, alkateak egindako erabaki proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. KIDE ANITZEKO ORGANOETAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Alkate-Lehendakariak ondoko proposamena adierazten du:

“Udalbatzari dagokio, 2568/1986 Errege Dekretuaren 38 c) atalaren arabera, udal eskumeneko kide anitzeko organoetara joan beharreko Korporazioaren ordezkariak izendatzea. Hori horrela akordio hau hartzeko proposatzen diot Udal Plenoari:

AKORDIOA

Lehena.- Eranskinean jasotako zinegotziak izendatzea kide anitzeko organoetan Aramaioko Udalaren ordezkariak.

Bigarrena.- Eranskinean jasotzen ez den erakunderen baten Aramaioko Udalak ordezkariak izan beharko balu, Alkatea izango da ordezkaria. Ordezkariak bat baino gehiago balira alkateordeak izango dira ordezkariak, hurrenkeraren arabera. Aukera hau premiazko kasuetan erabiliko da eta hurrengo udal plenoaren bilkuran ordezkaria izendatuko da. Aukeratutako zinegotziek zein ordezkariak ezin badira bilkuretara bertaratu alkatea eta alkateordeak izango dira ordezkari subsidiarioak.

Hirugarrena.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea.



ERANSKINA

1.- GORBEIALDEKO KUADRILLA

- 1 Ordezkaria: Lierni Altuna Ugarte.
- 2 Ordezkaria: Santiago Balantzategi Ugarte.
- 3 Ordezkaria: Juan Antonio Peña Orobengoa.

2.- UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATERAKO (UEMA)

- 1 Ordezkaria: Lierni Altuna Ugarte; ordezkoa: Gorka Astondoa Ugarte.
- 2 Ordezkaria: Oihana Ameskoa Perez; ordezkoa: Ana M Martiarena Arregi.

3.- GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BERDINTASUN MAHAIA.

- Ordezkaria: M Cristina Etxenausia Irure; ordezkoa: Lierni Altuna Ugarte.

4.- LANDA GARAPEN ELKARTEA.

- Ordezkaria: Santiago Balantzategi Ugarte; ordezkoa: Lierni Altuna Ugarte.

5.- GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA.

- Ordezkaria: Lierni Altuna Ugarte; ordezkoa: Ana M Martiarena Arregi.

6.- EUSKAL FONDOA ELKARTEA

- Ordezkaria: M Cristina Etxenausia Irure; ordezkoa: Lierni Altuna Ugarte.

7.- URKIOLAKO PARKE NATURALEKO PATRONATUA

- Ordezkaria: Lierni Altuna Ugarte; ordezkoa: Santiago Balantzategi Ugarte.

8.- ESKOLA KONTSEILUA

- Ordezkaria: Oihana Ameskoa Perez; ordezkoa: Lierni Altuna Ugarte.

9.- ZUBILLAGA HILTEGIA, SL

- Ordezkaria: Santiago Balantzategi Ugarte; ordezkoa: Lierni Altuna Ugarte.

10.- ELKARKIDETZAKO KONTROL BATZORDEA

- Ordezkaria: Lierni Altuna Ugarte; ordezkoa: Iban Herrarte Arana.

11.- DEBA GARAICO ESKUALDE OSPITALEA

- Ordezkaria: M Cristina Etxenausia Irure; ordezkoa: Lierni Altuna Ugarte.

12.- UDALBILTZA PARTZUERGOA

- Ordezkaria: Lierni Altuna Ugarte; ordezkoa: Iban Herrarte Arana.

13.- HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

- Ordezkaria: Lierni Altuna Ugarte; ordezkoa: Oihana Ameskoa Perez.

14.- ARABAKO BASOGINTZA ELKARTEA

- Ordezkaria: Santiago Balantzategi Ugarte; ordezkoa: Gorka Astondoa Altuna.

15.- EUDEL

- Ordezkaria: Lierni Altuna Ugarte; ordezkoa: Gorka Astondoa Altuna.

16.- ARAMAIXO BASARRI BARRI FUNDAZIOA

Fundazio honi dagokionean, horren etorkizunari buruzko hainbat zalantza sortu direnez, aurrerago erabakitzeko uzten da.”

Ondoren, bozketa deitu du eta, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, alkateak egindako erabaki proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



6. ALKATE KARGUA BETETZEAGATIKO ORDAINSARIA.

Alkateak hitza hartu eta ondorengo erabaki proposamena egiten du:

“Udal kudeaketak azken urteetan izan duen bilakaerak berebizikoa egiten du Udalaren kudeaketaz arduratzen denak lanaldi osoa dedikatzea lan horri. Kontuan izan behar dira horretarako, besteen artean; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75.2 artikulua; 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizatze eta Iraunkortasunari buruzkoa; 4/2015 Foru Araua, otsailaren 11koa, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioetan arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzeak duen foru berezitasunari buruzkoaren 4 artikulua; eta azken horri buruzko, Auzitegi Gorenaren 677/2019 epaia, 2019ko maiatzaren 23koa.

Beraz, horiek guztiak kontuan hartuta proposatzen diot Udal Plenoari akordio hau hartzeko,

AKORDIOA

Lehena.- Alkatea kargua betetzeagatik ordainsaria jasotzeko eskubidea finkatzea, baldintza hauekin:

- 1.- Dedikazioa erabatekoa izango da.
- 2.- Ordainsari gordina: 39.510,00 euro urteko; kopuru hori urtean 14 ordainsarietan banatuko da.
- 3.- Ordainsaria jaso ahal izateko dedikazioa izango da, udal enplegatu publikoen lanaldi osoa. Aldi berean, udal enplegatuei araudiak ezartzen dizkien soldata aldaketak ezarriko zaizkio.
- 4.- Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean alta emango zaio.
- 5.- Erabaki honek efektuak izango ditu legealdiak irauten duen artean edota, arauak ezarritako arazoengatik, alkate izateari uzten dion arte.
- 6.- Ez du parte den organo kideanizetara joateagatik bertaratze edo asistentziarik jasoko.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.”

Ondoren, bozketa deitu du eta, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, alkateak egindako erabaki proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

7. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.